


Emakumeen aurkako indarkeria ematen denerako jendaurreko jarduerarako gomendioak



**EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ**

**NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES**

AURKIBIDEA

● Sarrera	3
● Politikariek emakumeen aurkako indarkeriaren kasuen aurrean jendaurreko adierazpenak egiteko gomendioak.....	5
● Hedabideekin harremanetan ipintzeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kasuen berri emateko gomendioak.....	11
● Sexu erasoak edo emakumeen aurkako bestelako indarkeria-agerpenetan biktimarekin eta ingurukoekin harremanak edukitzeko gomendioak.....	15
● Sexu erasoak edo emakumeen aurkako bestelako indarkeria-agerpenetan mobilizatzeko deialdiak egiteko prozedurak	19

Emakumeen aurkako indarkeria ematen denerako jendaurreko jarduerarako gomendioak

SARRERA

Honako dokumentu hau Berdinsareako Indarkeriko Sexistako Batzorde Teknikoak prestatu eta, ondoren, EUDELekeo Batzorde Eragileak eta Berdintasuneko Batzorde Politikoak onartu dute.

Emakumeen aurkako indarkeriari lotutako eraso eta hilketen aurrean, jendaurreko jardueretarako gomendioak edukitzeko udalek egindako eskaeratik sortu da.

Gomendioak hurrengo lau ataletan antolatuta daude:

1. Politikarien **jendaurreko adierazpenak**.
2. **Hedabideekiko** harremana eta emakumeen aurkako indarkeriaren kasuen berri ematea.
3. **Biktimarekiko eta bere ingurukoekiko** harremanak, sexu-erasoetan edo emakumeen aurkako bestelako indarkeria-agerpenetan.
4. Sexu-erasoak edo emakumeen aurkako bestelako indarkeria-agerpenetan **mobilizatze**ko deialdiak egiteko prozedurak.

Politikariek emakumeen aurkako
indarkeriaren kasuen aurrean
jendaurreko adierazpenak
egiteko gomendioak



Honako hau aintzat hartuta:

- Jendaurrera zabaltzen diren emakumeen aurkako indarkeriaren kasuen aurrean (heriotzak, sexu-erasoak, kalean izandako erasoak, etxebizitzetan izandako erasoak auzokideen artean ezagunak diren eta zabaltzen direnean, eta abar) udaletako politikarien adierazpenak eskatu ohi da.
- Adierazpen horiek oso garrantzitsuak dira herritarren artean emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko kultura sortzeari begira.
- Udalerrietan arin hedatu ohi diren informazio faltsuei eta esamesei aurre egiteko bide egoki bakarra, batzuetan, adierazpen horiek egitea izaten da.
- Komunikabideetan agertutako udal politikarien adierazpenetan nabarmendu beharreko gai garrantzitsuak gehitu beharra ikusten da.

Proposamena:

- Berdintasun-sailek idatziz zein ahoz argudioak prestatzea politikariek hurrengo ildoak nabarmentzeko:
 - **Erasoa testuinguruan kokatzea.** "Gertaera" hitza edota hitz egiten duenaren "harridura" azaltzen duten adierazpenak desagertu egin behar dira. Erasoa indarkeriaren aurkako borrokan eta tokian tokiko berdintasunaren aldeko politiketan kokatu behar dira.
 - **Eraso guztiei garrantzia ematea.** Erasoa baten berri daukagunean, ezagutuko ez ditugun eta isilpean geratuko diren bestelako eraso asko ere badaudela azpimarratu behar da.

Izan ere, gizartean emakumeak "erruduntzat" jotzen dituzten mito eta aurreiritzi ugari badiraute gaur egun ere. Beti azpimarratu behar da, emakumeak ez direla jasaten duten indarkeriaren erantzuleak; indarkeria hori ez da euren erruz gertatzen, eta horixe azaldu behar dugu, lekua, ordua, erasotzailearekin duten harremana eta beste kontuan hartu gabe.

- **Indarkeriaren erantzulea indarkeria erabiltzen duena baino ez da.** Erasoa leku guztietan azaltzen direla azpimarratzea. Oso zabaldua dago leku "arriskutsuez" hitz egiteko joera. Edonola ere, hori garrantzitsua da espazio publikoei baldintza hobek eskaintzeko, emakumeentzako hiri eta herri seguruak eraikitze aldera. Dena dela, erasoak leku ilunekin edota bazterrekin lotzen dituen mitoa handitzea ekidin behar da. Horrelako lekuetan erasoak izaten diren arren, etxean ere gertatzen dira, tabernetako komunetan, jaietako txosnetan, lantokietan... leku guztietan. Gai honen harira, leku arriskutsuak desagertzeari garrantzia emango diogu, baina kale iluna/emakumeenganako erasoak kausa-efektuaren ideia indartu gabe.
- **Behin eta berriz azaltzea erasotzaile-profil zehatzik ez dagoela.** Alderdi honi dagokionez, garrantzizko aurrerapenak egon diren arren, emakume guztiok eraso matxista baten biktimak izan gaitezkeela eta erasotzaileen artean gizon-mota jakinik ez dagoela azpimarratu behar da. Kasu guztietan biktimaren zein erasotzailearen nazionalitatea aipatzea ekidin beharko dugu; izan ere, gehienetan, atzeritarrek direnean baino ez dugu egiten.
- **Indarkeriaren aurkako aurrerapenak nabarmentzea.** Garrantzitsua da politikariek, emakumeen aurkako indarkeriaren kasu baten aurrean egindako adierazpenen bidez, jendaurrean hurrengo alorretan egondako aurrera-


penak azpimarratzea: berdintasun-politikak, indarkeriaren aurkako ekintzak (ikastaroak, zerbitzuak), emakumeak eraso gelditzeko kapazak izan diren kasuak, indarkeriaren aurkako emakumeen elkarteak, etab. Hau da, herri-erakundeetan zein elkarteetan egiten ari den guztia nabarmendu behar dugu.

- **Biktimak salaketarik ipini ez zuela ez esatea.** Horrela egiten duenean, salatu ez izana ez da erabakigarria. Salaketarik ez balego ere, gertatu daiteke udal zerbitzuren batean edo beste erakunderen batean kasuaren berri izatea. Alderdi hori azpimarratuta, salaketa indarkeriatik ihes egiteko bide bakarra dela sustatzen da. Salaketa ipini eta geroago kendu egin badute, datu hori eman behar da baina aipatu gabe zeinen zaila den emakumearentzat salaketari eustea erasotzaileen eta ingurukoen presiopean.
- **Izenondoak arretaz erabiltzea.** Emakumeen aurkako indarkeriari lotutako ekintzek haserrarazten gaituzten arren, adjektiboak behin eta berriz erabiltzeak ez du adierazpen instituzionala irmoago bihurtzen. Hau da, gaitzespenezko adierazpena gertaera eta pertsoneri buruzko mespretxuzko kalifikazioz josita egoteak ez du jendea sentsibilizatzeko edota kontzientziatzeko balio. Gainera, alderdi moralak nabarmendu ditzake, berdintasun-faltaren egiturazko alderdiak alboratuta.

Herri-erakundeen eta politikarien adierazpenak ez dira beti hedabideetan hitzez hitz azaltzen, edo horien zati bat baino ez da agertzen. Horregatik, udalak dauzkan beste hedabide ofizial batzuen bidez mezuak zabaltzea garrantzitsua da, esate baterako, udal egunkaria, webgunea, gizarte-sareak, informatzeko berriperak, eta abar.

Hedabideekin

harremanetan ipintzeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kasuen berri emateko gomendioak



Honako hau aintzat hartuta:


- Hedabideak indarkeriaren aurkako borrokan izandako aurrepenak zabaltzeko berebiziko bitartekoak dira.
- Hala ere, guztiek ez daukate gai hauek jorrazteko jarraibide egokirik.
- Albistea berehala eman beharrak herri-erakundeen adierazpenak al bait arinen lortzeko presioa sortuko du.

Proposamena:

- Hedabideei erantzuteko jarraibideak zehaztea, jaso edota bidaltzeko informazioa prentsa- eta komunikazio-bulegoan zentralizatuta. Bulego horrek komunikazio arina izan beharko du Berdintasun eta Gizarte Zerbitzuetako Sailekin.
- Ez da bat-bateko erantzunik eman behar hedabideen presiopean kasuari buruzko informazioa egiaztatu arte. Jendaurreko adierazpenak egiteko jarraibideak kontuan hartu beharko dira emakumeen aurkako indarkeriaren kasuen aurrean hedabideentzako erantzuna emateko orduan.
- Hedabideei profesional espezialistek osatutako gidak edota jarraibideak eskaintzea. Hala, Berdintasun Sailen laguntza eskainiko zaie, gai honi buruzko aholkularitza eskaintzeko.
- Emakumeen aurkako indarkeria arlo zehatzetako berdintasun politikari lotzeko, Udalaren adierazpen politikoa egiten saiatu behar da beti, gertaera gaitzestearekin batera. Hala, udal politika integral eta koordinatu batetik gai honetan lan egiten jarraitzeko konpromisoak jarraituko du.

- Beti gogorarazi behar dugu zeintzuk diren emakumeen aurka-ko indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei laguntzeko baliabideak, batez ere, hizkuntza desberdinetan erabilgarri dauden eta fakturan agertzen ez diren 24 orduko doako telefono-zenbakiak. Halaber, gaiari buruzko kezka bat duten beste batzuk ere telefono hauetara dei dezaketela gogoraraziko dugu.

Sexu erasoak edo emakumeen
aurkako bestelako
indarkeria-agerpenetan
biktimarekin eta
ingurukoekin
harremanak edukitzeko
gomendioak



Honako hau aintzat hartuta:


- Indarkeriari aurre egin dioten edo egiten dioten emakumeak izan behar dira protagonistak, eta beraiek adierazi behar dute zer eta nola nahi duten haien bizipenaren berri ematea.
- Eraildako emakumeen kasuetan, familiak ingurukoen eta udaleko pertsonal politikoen benetako sostengua igarri behar dute.

Proposamena:

- Indarkeriazko edozein ekintzaren berri dugunean (komunikabideen, poliziaren, biktimaren, udalerriko auzokide baten edo beste inoren bidez) lehentasuna biktimarekin harremanetan jartzea izango da edo, heriotza ekarri duenean, bere familiarekin.
- Biktima neska adingabea bada, lehenik eta behin familiarekin edo legezko tutorearekin jarriko gara harremanetan, beharrezko laguntza eskaintzeko eta biktimarekin harremanetan jartzeko bideak zehazteko.
- Biktimaren edota familiaren samina errespetatzea hala nola erasoak sortarazten duen shocka gaitzetzeko beharrezko denbora-tartea ematea ere ezinbestekoa da, abian jarri edo sustatu nahi dituen ekintza publikoak elkarrekin erabakitze aldera.
- Biktima bere inguruarekin identifikatzeko edo lotzeko balio duen informaziorik ez ematea, bereziki adingabea bada, intimitate-eskubidea bermatzeko eta biktimizazio bikoitza ez gertatzeko.

- Lurraldearen arabera laguntzarako baliabideek funtzionamendu desberdina dutenez gero, biktimari edota bere inguruari udalerrian dauden zerbitzu zehatzak eskainiko zaizkie; zerbitzu horiek premiaz jarriko dira martxan eta biktimaren zein familiaren uneko beharrianetara egokituko dira. Halaber, garrantzitsua da bermatu ahal diren zerbitzuak baino ez eskaintzea, biktimarengan nahiz familiarengan okerreko itxaropenik ez sortarazteko.

Sexu erasoak edo emakumeen
aurkako bestelako
indarkeria-agerpenetan
mobilizatze
deialdiak egiteko prozedurak



Honako hau aintzat hartuta:

- Heriotza eragiten duen emakumeen aurkako indarkeriaren kasuetan, jarduteko protokoloa badago ere, ez dago protokolo bateraturik biktimaren heriotza eragiten ez duten kasuen aurrean nola jardun jakiteko.
- Elkarretaratze publikoak egiteko deialdiak behin eta berriz edo jarraian egiteak indarra kendu ahal dio lortu nahi den helburuari edo, salbuespenetan, erasoen aurreko erantzun xumeagoekin alderatuta, bidegabekeria eman dezake.
- Herri erakundeez gain, emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko xedez manifestazioak eta horietarako deialdia egiteko eskubidea edonork dauka, baita edozein pertsonak edo taldek ere.

Proposamena:

- Elkarrekin ados jarrita, emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko ekintza bateratuen deialdiak egitea; izan ere, batera lan egitea bide hobea da. Hala ere, bai herri-erakundeez, bai elkarrekin beharrezko deritzotenean herritarrak deitzeko eskubidea dute.
- Kontzentrazioen helburuari buruzko hausnarketa egitea, izan ere, kontzentrazioak ekintza matxisten aurrean isiltasuna hausteko modua izan daitezke, baina sentsibilizazioa eta kontzientziak sortzeko ere balio dute. Hori dela eta, kasu jakin batengatik kontzentrazioa antolatzen denean, garrantzitsua da eskura dugun informazio guztia kontrastatuta egotea.

- Kontzentrazioak, ahal den neurrian, biktimarekin adostuta egin behar dira, baina jarraian aipatuko ditugun honako arrazoiak direla kausa, ezin dira adostasun horren mendean egon.
 - Erasoei buruz ezagutzen dena, beste inor egon den toki publiko batean gertatu bada.
 - Gizarte-sareetan eduki lezakeen zabalkundea.
 - Eraso guztiei erantzuteak daukan garrantzia.
 - Biktimaren ordeztasun, erasotzailea estigmatizatuko duen kultura sortzea.
- Behar dugun informazioa albait arinen batu ondoren (lanegunetan gertatzen bada, 24 ordutan; eta asteburuan edo jaiegun batean izanez gero, hurrengo lanegunean), berdintasun-sailek abian jarriko dituzte kontzentrazio-deialdia egiteko mekanismoak (Berdintasun Kontseilua, Osoko Bilkura, eta abar); elkarrekin koordinatzeko ahalegina egingo dute eta, azkenik, gertatutakoa gaitzesteko adierazpen publikoa osatuko du. Horretarako, adierazpen publikoak egiteko proposatu ditugun gomendioak kontuan hartu eta antolatutako ekintzari buruzko informazioa zabalduko dute.
- Deialdia Udalak egin beharrean elkarrekin batek egiten badu, ekimen horretarako laguntza eskainiko da, protagonismoa elkarrekin bati edo batzuei dagokiela argi eta garbi adierazita.